




Aizkolariak

Euskal kirolak garrantzi haundia daukate euskaldun yendeen artean, nor-gehiagoka hoiek piztu egiten du gizakien odola. Gure artean baditugu aiza aunitzeta-ko yokoak, pilota, aizkora, arri-goratze, sega-apostuak, korrikalariak eta bertze. Aizkora apostuak mugiarazten du yendea batez ere sosa yokatzen denean. Gaurko egunean Txapelketak egiten dira eta euskal kirolak zuzenbide osoan antolatzen dira. Urriko ilabete hontan ospatu dira bi aizkolari Txapelketa eta garrantzi haundikoak. Lehen egun zuzen Euskalerrikoak, nafartarrak eta gipuzkoarrak nor-gehiagoka aritu zirela. Txapelketa Arrospeide gipuzkoarrak irabazi zuen eta merezimnedu guziz Txapeldun denak garaiturik. Bigarren Olasagasti gipuzkoarra. Hirugarren Larretxea nafartarra. Laugarren Nazabal nfartarra. Bosgarren Mindegia nafartarra. Seigarren Erasun gipuzkoarra.

Zortzi egunen buruan bertze Txapelketa bat eta oraingoan na-

fartarrentzat bakarrik. Urriaren 16-an ospatu zen Donezteben Nafarroako aizkolari Txapelketa eta hontan borts aizkolari ari izanak direla. Aizkolari bakotxaren lana: Lau enbor kana-erdiko. Lau 60 ontzako. Bi oinbiko. Denetara hamar enbor bakotxarentzat. Aizkolariak lan ederra egin zuten eta denen gañetik eta merezimnedu guziz, Mikel Mindegia Txapeldun denak garaiturik lan guzia 26 m. eta 4 s/tan eginik. Bigarren Larretxea. Hirugarren Nazabal. Laugarren Senosiain eta bosgarren Jaunarena. Mikel Mindegia 45 urteko aizkolaria, zazpi urtez Nafarroako txapeldun. Arrigarria Mikelen garaipena, iñork ez zuen uste Txapelketa irabaziko zuenik, aitzineko igandean Euskalerriko Txapelketan egin zuen lana ikusirik. Egun hortan Larretxea eta Nazabal bere aitzinean eta oraingoan Donezteben Mikel Txapeldun denak garaiturik. Zorionak eta zure sasoiak iraun dezala.

M. Izeta

Kaixo Ardantza adiskide! Sortu zaik prakak bete lan!

—Arrazoi dok, Bixente, sortu yatak prakak bete lan.
—Zer egitea pentsatzen duk jaurlaritza moldatzeko.
—Ez zekixat oraindik. Asi bearko yat korapillo zail ori nola askatu pentsatzen.

Irakurle: «Naparroa'ko Egunerokoa'ren orri euskaldun au ez da politikagintzarako, eta ez naiz ni, emen, baten alde edo bestearen alde, politika egiten asiko. Soilki auteskunde batzuen ondorioak aztertu nai nituzke. Arazo larriarik aski sortu bait da Euskalerriko iru probintzitan egin diren auteskunde oien atzetik.

Betiko arazoak aurrena, Naparroa'n ere bizirik dauzkagun arazoak, baña, bearbada, Araba'n eta bereiziki Bizkai'n eta Gipuzkoa'n emen beiño mingarriago agertzen direnak:

1ª: Industria, arrantzu eta nekazaritzaren krisia, ots, egoera larria.

2ª: Lanik-eza.

3ª: Indarkerizale odol-ixurleen arazoa beinbetirako konponduta pakea lortu bearra.

Ta, -seguruaski Naparroa'n ere laister izengo dugun arazoa-, korapillo neketsu oiek egoki askatzen asi aal izateko, Jaurlaritza sendo bat eratu bearra. Ez, noski, eginkizun erreza.

Zailtasuna, Gazteiz'ko Lege-Batzar berriaren aldetik sortu da. Orain arte, bi ziran Lege-Batzar ortan Alderdi indartsuak: EAJ abertzale sabindarra eta PSOE sozialista gontzaleztarra. Beste Alderdiek, oso txikiak izanik, ez ziren eragozpen aundirik sortzeko gai izeten.

Orain ordea zeoro aldatu dire gauzak. Zillegi bezait, aldakuntza orren adigarri bezala, Xabier Arzalluz'en esaldi bat erabiltzea. Egon ditek, bai noski, gizon orren alde edo gizon orren aurka, bañan naita- naiezkoa da esakizun borobillak botatzeko iñor ez bezalako dela aitortu bearra.

Gaur bertan (Urriaren 25'ean) esana du onako au: Gazteiz'ko Lege-- Batzarrean «han crecido los enanos y aquello se convertirá en un gallinero». Ederki esana: azi zaizkigu, eta ollategi biurtuko digute Gazteiz'ko Lege-Batzarra.

Ez: Alderdi sozialista, ¡zapla! jausi da goitik beera. Ta len Alderdi txikiak zirenak, beera egin duen EA izen ezik, gora egin dute nabarmenki PP'k, EB edo Ezker Batua - Izquierda Unida'k eta Unidad Alavesa'k. (Ainzuzen azkeneko onek izenez aldatuta «Unidad Vitoriana» deitu bearko dio noski bere buruari, Gazteiz'en irabazi duen bezala, ez bait du Araba'ko erri bat bakarrean ere irabazi).

Ipotxak azi egin dire. Ez dire, ordea, azi, agintzen



asteko aña, bai ordea saltsarik ugari sortu aal izateko aña, ots, Lege-Batzarra ollategi biurtu aal izateko aña. Gañera, Alderdi oietako batek parté artu bearko du naitanaiez Jaurlaritza berrian, EAJ'k eta PSOE'k, alkar- tuta ere biek bakarrik geiengoa lortzeko gauza ez diren ezker.

HB, bere oiturari jarraituz, ez da Lege-Batzarrera agertuko. Gañera, esan du Ardantza'k ez dela HB'rekin izketan asiko. Nor izengo ote dire ba Jaurlaritza berriko kideak?

EAJ + PSOE + EA? EAJ + PSOE + EB? Zallagoa izango litzake, noski, EAJ'z PSOE'z eta PP'z osotutako Jaurlaritza bat. Eta, oraingoz, Unidad Alavesa Jaurlaritzara deitua izen daitekela pentsatzerik ere ez dagoela dirudi.

Jainkoa lagun bezaio Joxeantonio Ardantza'ri bere eginkizun zaillean.

Ez bedi beintzat Gazteiz'ko Lege-Batzarra ollategi biurtu. Ori da Naparroa'tik bene-benetan Jainkoari eskatze dioguna. Danoi konbeni bait zaigu Gipuzkoa, Bizkai eta Araba sendo ta zintzo gobernaturik ibiltzea.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Nik Jainkoa diodanean...

«Maita ezazu Jauna, maita ezazu zure lagunurkoa»
(Mk.12,38-34)

ORTIK dabik onoko esaldi au: «Zuk Jainkoa diozunean, nik lagunurkoa diot». Au da, maitasunaren ardatza ez da Jainkoa bakarrik. Jainkoa eta urkoa, biak.

Azaleko konponketak ez dute balio. Jainkoa ez da beste iñorekin eta ezerekin naastu bear. Jainkoari Jainko izaten utzi bear diogu.

Zailla egiten zaigu Jainkoa eta gizakia biak batera maitatzea. Ikusten ez duguna, ordea, nola maite ikusten duguna eta inguruan bizi dena maitatzen ez baldin ba dugu? Ez da arritzekoa gazteek Elizari, erlijioari eta Jainkoari muzin egitea; edota, aintzakotzat ez artzea.

Gure ezker-eskwubi bizi den gaztea gauzak ikusten, ikutzen eta gertakizunen arrazoiak jakiten oitua dago. Gure inguruko gazteak ez du ulertzen gizakia zerogatik dagoen baztertua eta marjinatua asko ta asko elizara joan eta erreztan ari diren bitartean.

Orregatik da igandero irakurtzen dugun Ebanjelioa zailla. Gure pentsamolde guztietatik aparte gelditzen sarritan Jesus- en itza. Ez al da penagarria?

Errez ulertzen dugu norbaitek kotxea aldatu edo etxe-bizitza berria erosi nai duela erraten digunean. Guztiok gora egitea eta gero ta obeto bizitzea da egin dezakegun ametsik ederrena.

Parrokiako taldeetan gasteroa egin ondoren erlijioso, erlijiosa edo apez izan nai dutela-ta komentura edo seminaria joan nai duela adierazten digunean, guztiz xebebrekeria iruditzen zaigu. Oraindik ere orrelako gazteak bai al dira gure errian? galdetzen dugu.

Jainkoa biotz-biotzez, gogo-gogoz, zeure adimen osoz eta indar guztiz maite bear dugula erran digu Jesus-ek. Au da, Jainkoa nire osotasunean maite bear dut.

Ugari dira, ordea, zertako balio du Jainkoa maitatzea? galdetzen dutenak. Jainkoa maitatzea gure bizitzaren ardatza da, gunea eta bearrezkoa. Jainkoa maite dugun neurrian maita dezakegu urkoa.

Maitasunez benetan eta egiaz biziko bagenu mundua eraberrituko genuke, aldatu eta ohea egingo genuke. Dudarik ez izan ortaz. Ori bai, Jainkoa eta urkoa maitatzeko ikasi egin bear dugu. Eta lezio ori besteei entzutea da. Zoritarrez ez dakigu entzuten, ez dakigu urkoa aintzakotzat artzen, ez dugu ortarako astirik artzen.

Gaur tezun dugun Ebanjelioa Jesus-ek egiten duen laburpenik inportanteena da. Gogoan artu eta bizitzan gauzatu dezagula.

Artzalluz'tar Joxemari

Gares'ko euskararen txoria

Gares iria bitzi bat dugu Nafarroa'n; toki atsegiña, edergalluak ezin konta, zubi bat erromaniako zoragarria (Arga ibaia azpitik di-joakio), bi milla biztanle ta euskal kutsu ederra aspaldikoa dena. Joan den gizaldian Bonaparte euskerazaleak Gares'en laguntzalle bat zeukan, Jose Maria Otamendi. Bonaparte'n mapan (1863) iru au euskararen muga da Nafarroa'n. Iruña'ko «Euskara» elkarteak (1877) Kide bat dauka Gares'en, Antonio Zia. Euskal izen zarrak gordetzen dituzte biziki. Santiago-ren irudi guztiz eder eta galanta bateri «Beltza» deitzen diote, erri biltoki zarrari «Batzarre».

Ara bertze eredu batzuek: «Zabalza», «Zabaltzagoiti», «Kanpoetxeta», «Murugarren» eta abar. Ba dute ere ipui polit bat «txori» izenekoa. Nunbait zubian elizatxo bat zeukaten eta orman Andra Mari-ren irudia eta txori bat zetorkion urtean bein armiamaren saretxoak kentzera. Gertakizun au ospatzera Errikoetxea apaizekin biltzen zen zubi ondoan. 1843'garren urtea azkena, txoria agertu zela.

Gaurko euskararen txoria bertako semea dugu, Pedro Jimeno apaiza. Euskara ondo daki ta gure izkuntza zabaltzen ari da era bat Gares'en. Amairu urte dire bere sorterrian dogala eta ez da geldirik egoteko gizona.

1915'garren urtean sortu zen Gares'en, Guerra delako etxean. Oso txikia zelarik, aita loretegizaindari bezala, sendi osoarekin joan zen Getaria'ra (Gipuzkoa) bizitzera. An aurrekin jolasten karrikan euskara ikasi zuen Pedro Jime-



Pedro Jimeno

no'k. 1940'garren urtean apaiztu zuten. Toki ezberdiñetan ibilli zen lanean, bai Araba'n, bai Gipuzkoa'n. Zartzarora artu ondoren Gares'era itzuli zen. Iri ontan elduei euskara erakusten asi zitzairen. Le-nengo ikasleak ondo oroitzen ditu: Aldaz, Otxoa, Beriain jaunak.

Orain dela lau urte kristauikasbi-dea eukaraz ematen asi zuen. Aurt-ten iru talde ditu: bat borts kidekin, bertzea lau eta bertzean zazpi.

Ikasbidea ondo zuzendua dauka; itzaldiakin asten da, oitotzarekin jarraitzen eta eskariekin amaitzen. Aurak alaxeko erantzuna ematen diote. Ara neska baten eskariaren erudia: «Dana falta zaidanez, Jesus, bainan zu ez mesedez». Gure apaiza gaxo zegolarik, aur txiki bat-tek orrela erran zion: «Min aunitz al duzu?»

Euskal Meza irugarren igandetan Korazonistetan ematen du amaika terdian; sei edo zazpi lagun datozkio.

Ezkontza bein egin du euskaraz Gares'en; baita batayo bat ere. Oyek ere bertze aunitz dire euskararen txoriaren lanak. Gaur berriz euskal giroa indartzen dijoa era bat, Gares'en. Danez gain ezin aztu berrogei ta zortzi ikaslek gai denak euskaraz artzen dituztela ikastetxean.

Udaletxean ba daukate ere euskararen arduraduna, Txaro Azkona, emakume argi ta langillea. Egunero joaten da Iruña'ra euskara geyago ikastera, eratzen ditu baita ere euskal kulturaren asteak Gares'en, ipuien sariketak eta abar.

Murugarren delako aldizkaria euskaraz sortu dute; berriak, elkar-ritzketak, ateraldiak eta asmo bere-riak agertzen dituzte. Ba dituzte ere gaueskolak; irurogei milla pe-zeten laguntza jasotzen dute. Ezin aztu ZUBIA delako dantzari taldea: ogeitamabi kide ditu, orain dela ogeitamar urte sortua.

Gares'ek ba du euskal margoa, otsa ta arnasa, baita ere euskararen txoria.

Latxaga